

yugoslabiako gertaerez

Tous les mois, la « Tribune libre » d'Enbata s'enrichira dorénavant de la signature de Jose Luis Alvarez Enparantza, « Txillardegui », après celles de J.L. Davant, R. Irazusta et J.C. Laronde.

Est-il besoin de présenter notre quatrième « invité » ?

Fondateur de ETA, Sénateur et membre du Bureau national d'Herri Batasuna, Txillardegui est aussi l'un de nos meilleurs linguistes et écrivains. Il a le rare privilège d'être à la fois un intellectuel et un militant engagé. Il possède aussi la double connaissance des deux parties écartelées de notre patrie puisque, fuyant le franquisme, il vécut longtemps en Iparralde.

Herri nahasketa larriari datzekion arazo politikoak nolazpaitizendatzekotan, aspaldian asmatu zen « balkanizazio » hitza. Eta Yugoslabiako Estatua jarri izan da Balkanetako egoeraren adibidetzat.

Hots, prentsak egun hauetan behin eta berriz errepikatzen duenez, krisi larritan sartu da Ygoslabia. Eta porrot horrek ondorio ideologiko eta politiko ezin sakonagoak ekarriko lituzke; batera federalismoaren eta autojestionaren eredu bera bihurtu baitzen Yugoslabia azkeneko urteotan.

Krisiaren oinarrian agian, eta ongi neurtu ezinezko moduan, yugoslabiari ekonomia-aren deskalabroa dago: prezioak BIKOIZTU egin omen dira azkeneko urte honetan barrena. Kosovo-ko errenta ertaina, berriz, Eslovenia-koa baino bost aldiz txikiagoa da. Inflazio abiadura ero horretan, eta eskualdeen arteko desoreka nabarmen horretan, nekez lor

Par TXILLARDEGI

daiteke deus onik.

Hala ere, ekonomi arazo horiek al dira giltzarria? Ez dut nik uste.

Prentsak azaldu duenez, egoera larria bi eskualdetan gertatu da segidan: Vojvodinan aurrenik, Iparraldean; eta Kosovon gero (« Kosmet » en), Hegoaldean.

Bi lurralde horietxe dira Yugoslabian dauden bi Errepublika « autonomo » bakarrik. Gainerakoak, Serbia, Kroazia, Eslovenia, Bosnia, Montenegro eta Mazedonia, « federatuak » dira. Zergatik desberdintasun hori?

Eslovenian, esloveniarrak dira nagusi; Kroazian, kroaziarrak; eta abar. Hizkuntzaren alorrean, era berean, serbo-kroaziera da hizkuntza ofiziala lau Errepublikak « federatu » tan esloveniera Eslovenian, eta mazedoniera Mazedonian. Vojvodina eta Kosovo Errepublika « autonomo » etan berriz (biak Serbiaren barruan, bestalde) magiarrera (hungariara) eta albaniera, « ofizialkide » bestetik ez dira, serbo-kroazierarekin batera; eta elebitasuna dago.

Galdera ziplo dator: zergatik autonomia bakarrik? zergatik elebitasuna bakarrik? Eta erantzuna garbi dago: Vojvodina, eta KOSOVO BATEZ ERE funtsean ESKUALDE ESLABIARRAK ez direlako. Bestela esanda, Vojvodinan, eta Kosovon batez ere, NAZIO-ARAZOA begi bistan dagoelako.

Vojvodina-ko arazoak ez dirudi oso larria. Bizi-maila ekonomiko ona du; eta bertako magiartarrak (hungariarrak) % 18,8 bestetik ez dira; bertan bizi diren serbiarrak, aldiz (1.107.378. biztanle, 1981), gehingoa direlarik (% 53,9). Baina serbiarrek orain aginte OSOA eska-

tzen dute berentzat Vojvodinan, han magiartarrak ez balego bezala. Titok oso kontuz baztertu zuen serbiarria zanpatzaile honek, txalo beroak biltzen ditu Belgradon.

Askoz larriagoa da, halere, Kosovo-ko egoera. Bizi-maila ekonomiko, apala da oso; lanik eza, zabala. Demografia, azkenik, kezkarria da arrunt serbiarrentzat. Kosovo-ko Errepublikan, albaniarrek baitira nagusi, eta aisa gainera: 1.226.736 lagun (1981), % 77,4. (kontutan har Albaniko albaniarren kopu μ ua: 2.588.750 lagun, ozta-ozta kosovarren bikoitza). Serbiarrak, berriz, gutxiengo bat besterik ez dira Kosovon (209.496 lagun, % 13,2). Eta albaniarrek « zapalduta » bizi omen dira.

HOts, albaniarrek oro (bai Albania ofizialekoak, bai Yugoslabiakoak) oso abertzaleak dira: « albaniarren erlijioa Albania da » esan ohi da. eta gero eta garbikiago senditzen da albaniar guztiek bat egiteko asmoa. Eta, noski, Belgrado beldurrak dago erabat; eta zanpaketa azkartu behat du.

Mazedoniako albaniarrek, azkenik, ez dira oraingoz « mogitu ». Baina Belgrado beldur da: 377.726 lagun dira.

Soluzioa? Ezaguna, nik uste: Serbia-ko magiartarre eta albaniarrei autodeterminazio eskubide aitortzea; eta mugak aldatu behar badira, eta Serbiak eskualde batzu « galdu » behar baldin baditu, gal ditzala.

Eta ohar bat: Estatu FEDERALE bat (eta inon hitza azpimarra badaiteke, Yugoslabian egin zitekeen) horrela gertatzen bada, eta nazio arazoan han ere konpondu ezina bada, atera kontua Espainia eta Frantzi « une et indivisible » ezagunei gertatuko zai ena. Ezekiel izan gabe ere...

Geroak erranen.

REFERENDUM

■ Le référendum du 6 novembre 88 installe un cadre constitutionnel pour l'autodétermination de la Nouvelle Calédonie.

EN APPELANT A VOTER OUI, nous soutenons la lutte menée par le FLNKS en vue de la libération du peuple Kanak.

Qu'ils soient à 800 km ou à 15000 km de Paris, qu'ils soient blancs ou noirs, qu'ils parlent créole, corse, occitan breton ou basque, les autres peuples de l'Etat français ont droit à l'existence et à l'autodétermination.

Pour la Kanaky, nous nous réjouissons de l'attitude du gouvernement français qui a mis fin à une répression aveugle et insensée par une négociation politique. Elle contraste totalement avec la politique menée en Pays Basque où selon M. JOXE la répression coûte 50 milliards par an (budget des Ikastola 1 million), et qui, de plus, va être intensifiée en accord avec le gouvernement espagnol.

La France qui a produit la déclaration des droits de l'Homme, en 1789 retrouvera sa vocation le jour où elle souscrita à la déclaration universelle des droits des peuples proclamée à Alger le 4 juillet 1976.

EUSKAL BATASUNA.

LIVRE

■ « L'affaire Seznec », plus récent livre de Denis Langlois, sorti aux Editions Plon fin septembre 1988, est vraiment à faire connaître. Peut-être permettra-t-il d'éviter la multiplication à l'infini de si nombreuses « erreurs », (ou bavures) judiciaires, fondées sur de faux témoignages, des semblants d'expertises, des imitations de signatures !...

Guillaume Seznec, Breton, maître de scierie à Morlaix, avait été accusé d'avoir assassiné son ami, conseiller général du Finistère, qui avait disparu depuis leur dernière rencontre. Malgré ses cris d'innocence et l'absence de preuves, Seznec avait été jugé coupable et envoyé au bagne de Cayenne en 1924.

Notre ami Denis Langlois, avocat, auteur particulièrement connu pour ses « Dossiers noirs de la police et de la Justice française », a été chargé par la fille et les petits enfants de cet homme, broyé

par la machine judiciaire, de demander sa réhabilitation.

Penché depuis plusieurs années sur cette affaire qui, comme l'affaire Dreyfus, reste le symbole de l'erreur judiciaire, Denis Langlois découvre des documents jusqu'alors inconnus, ou « volontairement ignorés ». Il nous raconte, avec sa sensibilité si communicative, l'histoire véridique de l'affaire Seznec, la plus célèbre et mystérieuse de l'entre deux guerres, toujours d'actualité.

A lire absolument et à méditer!...

■ Les Xé Entretiens sur le régionalisme auront lieu les 14, 15, et 16 Novembre à St Vincent (Val d'Aoste) en Italie sur le thème « les Relations extérieures des Régions ».

Notons les interventions de Carmelo BUSTURIA, de Donosti, et de André LUBERRIAGA, Maire d'Ascain.